

Malla  
nov. 1957

# KRISTIÑAU IKASBIDEA

LENENGO MALLEA

*Euskaltzaindiaren ardurapean euskeratua*

*Bizkaiko euskeraz*

[1957]



## EUSKERAZ ONDO IRAKURTEKO

*ka, ko, ku, ke, ki:*

erderazko *ca, co, cu, que, qui* legez.

*ga, go, gu, ge, gi:*

erderazko *ga, go, gu, gue, gui* legez.

*za, zo, zu, ze, zi:*

erderazko *za, zo, zu, ce, ci* legez.

*txa, txo, txu, txe, txi:*

erderazko *cha, cho, chu, che, chi* legez.

*x letrea:*

*ixetu* berbean entzuten dan legez.

*tz:*

*arantza, atzo* ta *olakoetan* entzuten dan legez.

*ts:*

*atsoa, otsoa* ta *olakoetan* entzuten dan legez.

# KRISTIÑAUAREN OTOITZAK

## Gurutze Santuaren

Gurutze santuaren † señaleagaitik —  
geure † arerioakandik — zaindu gaizuz †  
geure Jaun eta Jaungoikoa.

Aitearen eta Semearen † eta Espiritu  
Santuaren izenean. Amen.

## Aitagurea

Aita gurea, zeruetan zagozana, santifi-  
kadu bedi zure izena;  
betorkigu zure erreinua;  
egin bedi zure borondatea, zeruan lez lu-  
rrean be.

Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia;  
parkatu eiguzuz geure zorrak, geuk gure  
zordunai parkatzen dautseguzan lez;  
eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten;  
baiña gatzetik jagon gaizuz. Amen.



## **Agur Maria**

Agur Maria graziaz betea;  
Jauna da zugaz;  
bedeinkatua zara zu andra guztien artean,  
eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua  
Jesus.

Santa María, Jaungoikoaren Ama, erre-  
gutu egizu gu pekatarioen alde orain eta  
gure eriotzako orduan. Amen.

## **Gloria**

Aintza Aitari, Semeari eta Espiritu  
Santuari.

Len lez orain, beti ta amaibako egune-  
tan. Amen.

## **Salbea**

Agur Erregiña, Ama errukiorra, geure  
bizitza, gozotasun ta itxaropena, agur.

Zuri deyez gagoz Ebaren ume erbeste-  
tuok: antsiz eta negarrez gatorkizuz  
negar erri onetan. Ea bada, biurtu egi-  
zuz, geure bitarteko on orrek, biurtu gu-

gana zure begi errukitsu orreik, eta er-  
beste onen ondoren erakuskuzu Jesus,  
zeure sabeleko seme bedeinkatu ori. O  
biotz bigun! O errukior! O Maria Birjiña  
gozoa! Gure alde otoi egizu, Jaungoikoa-  
ren ama done orrek, Jesukristoren agin-  
tsariak jadetsi daikeguzan. Amen.

### «Confiteor»

Nik, pekatari onek, autortzen dautsat  
alguztidun Jaungoikoari, Andra Maria  
beti-Birjiñeari, Santu guztiai ta zuri, ene  
Aita orri, pekatu larregi egin dodala,  
gogapen, itz eta egitez, neure erruz, neu-  
re erruz, neure erru andiz. Augaitik eska-  
tzen dautsat Andra Maria beti-Birjiñeari,  
santu guztiai ta zuri, ene Aita orri, otoi  
egin dayozuela nire alde Jaungoiko gure  
Jaunari. Amen.

### Damu-otoitza

Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko ta  
gizon egiazkoa, neure Egille ta Salbagi-  
llea; zareana zarealako, eta on utsa za-  
reanez gauza guztiak baiño maiteago zai-  
tudalako, eta inpernuko oiñazeekin zi-

gortu naikezulako, damu dot, Jauna,  
damu dot biotz-biotzez Zu naibagetu  
izana.

Zure grazia zerutarrak lagundurik, as-  
mo sendoa artzen dot ez geyago pekaturik  
egiteko, autortu eta oben-nekea betetako.  
Amen.



## **Kredoa**

Siñisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru-lurren egillea.

Siñisten dot Jesukristo, bere Seme bakarra, gure Jauna; Espiritu Santuaren birtartez sortu ta Maria Birjiñeagandik jayozana; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean josia, illa ta obiratu izan zana; inpernuetara jatsi ta irugarren egunean illen artetik biztu zana; zeruetara igon eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean dagoana; andik biziak eta illak epaitzera etorriko dana.

Siñisten dot Espiritu Santua, Eliza Santu Katolikoa; santuen alkartasuna, pekatuen parkamena, ildakoen biztuerea, eta betiko bizitzea. Amen.

## **Jaungoikoaren Legeko Aginduak**

Jaungoikoaren legeko Aginduak amar dira:

Lenengoa, Jaungoikoa gauza guztiak baiño maiteago izango dozu.

Bigarrena, eztozu Jaungoikoaren izena alperrik agotan artuko.



Irugarrena, jaiegunak jai egingo dituzu.

Laugarrena, zure gurasoak aintzat eukiko dituzu.

Boskarrena, eztozu iñor ilgo.

Seigarrena, eztozu aragikeririk egingo.

Zazpigarrena, eztozu ostuko.

Zortzigarrena, eztan gauzarik iñori eztautsazu ezarriko eta guzurrik be eztozu esango.

Bederatzigarrena, gogorapen ta gurari loiei eztautzesu lekurik emongo.

Amargarrena, iñoren ondasunen gurari bidebakorik eztozu eukiko.

Amar agindu oneik bitan dagoz: Jaungoikoa beste ezer baiño geyago, ta lagun urkoa geure burua lez maite izatea.

## **Eleiza Amaren Aginduak**

Eleiza Amaren agindu nagusiak bost dira:

Lenengoa, domeka ta jai guztietan Meza osoa entzutea.

Bigarrena, pekatu astunak autortzea,



urtean bein gitxienez, eta ilteko arriskuan eta Jauna artu bear danean.

Irugarrena, Pasko-aldian Jauna artzea.

Laugarrena, Eleiza Amak agintzen dau-  
enetan, aragi-izte ta barau egitea.

Boskarrena, Eleizeari bere bear izanetan  
laguntza emotea.

### **Sakramentuak**

Eleiza Amaren Sakramentuak zazpi  
dira:

Lenengoa, Bateoa.

Bigarrena, Sendotza.

Irugarrena, Autortza.

Laugarrena, Eukaristia.

Boskarrena, Azken-igurtzia.

Seigarrena, Abadegintza.

Zazpigarrena, Ezkontza.

## KRISTIÑAUAREN IZENA

- 1 Kristiñaua zara?—Kristiñaua naz, Jaungoikoari eskerrak.
- 2 Kristiñau izatea zer da?—Kristoren jarraitzalle izatea da kristiñau izatea.

### GURUTZEAREN EZAUGARRIA

- 3 Ze ezaugarri dogu kristiñauak?—Kristiñauak gurutze donea dogu ezaugarri.
- 4 Gurutze donea, zergatik da kristiñauaren ezaugarri?—Gurutze donea kristiñauaren ezaugarri da, Jesukristo gure Jauna, gizon guztiak salbatzearren, bertan il zalako.

### KRISTIÑAU IKASBIDEA

- 5 Zer jakin bear dau kristiñauak?—Kristiñauak, kristiñau ikasbidea jakin bear dau.
- 6 Kristiñau ikasbidea zer da?—Kristiñau ikasbidea da Jesukristo gure Jaunak, guri zeruko bidea erakustearren, irakatsi ebana.

# *SINISTU BEAR DITUGUN*

## *EGIAK*

### **JAUNGOIKO BAT ETA IRU PERSONA.**

- 7 Nor da Jaungoikoa?—Jaungoikoa, gure Aita da, zeruetan dagoana; gauza guztien Egille eta Jauna, onak saritu etz gaiztoak zigortzen dituana.
- 8 Nun dago Jaungoikoa?—Zeru-lurretan eta leku guztietan dago Jaungoikoa.
- 9 Jaungoikoak dana ikusten dau? — Jaungoikoak dana ikusten dau, lengoa, oraingoa eta gerokoa, baita gogorapen ezkutuenak be.
- 10 Jaungoiko bat baiño ez al-dago?— Ez, Jaungoiko bat baiño ez dago.
- 11 Zenbat persona dagoz Jaungoikoagan?—Jaungoikoagan iru persona dagoz: Aita, Semea ta Espiritu Santua.
- 12 Nor da Irutasun Santua?—Irutasun Santua, Jaungoiko berbera da, Aita, Seme eta Espiritu Santua, iru Persona banak, baiña egiazko Jaungoiko bakar bat.

## JAUNGOIKO EGILLEA

- 13    Zergatik esaten dogu Jaungoikoa egille dala?—Gauza guztiak ezerezetik egin zitualako esaten dogu Jaungoikoa Egille dala.
- 14    Zergatik esaten dogu, Jaungoikoa gauza guztien Jauna dala?—Jaungoikoa gauza guztien Jauna dala esaten dogu, guztiak Berarenak diralako, eta guztiak jakituri az eta maitasunaz zuzentzen eta jagoten ditualako.
- 15    Jaungoikoak zertarako egin ditu Aingeruak?—Jaungoikoak egin ditu Aingeruak, Bera goratu, bere esanak egin, eta zeruan zoriontsuak izateko.
- 16    Nor da Aingeru jagolea?—Aingeru jagolea, Jaungoikoak bakotxari emoten dauskuna da, lurreen zaindu eta zeruko bidean guri lagun egiteko.
- 17    Jaungoikoak, zertarako egin gaitu gizonok?—Jaungoikoak egin gaitu gizonok, Bera maite daigun, lurreen bere esanak egin, eta gero zeruan Bera gaz zorionekoak izateko.



**18** Jaungoikoaren seme ete gara kristiñauak? — Kristiñauak, Jaungoikoaren semetzat artuak izan gara.

**19** Kristiñauak noiz egiten gara Jaungoikoaren seme?—Bateoa artzen dogunean egiten gara kristiñauak Jaungoikoaren seme.

### **JAUNGOIKO SALBAGILLEA**

**20** Irutasun guztiz santuaren iru personetik, zein egin zan gizon?—Irutasun guztiz santuaren iru personetik bigarrena, Semea, egin zan gizon.

**21** Jaungoikoaren semea zertarako egin zan gizon?—Jaungoikoaren semea egin zan gizon, gu salbau eta guri zelan bizi erakustearren.

**22** Nor da Jesukristo?—Jaungoikoaren Seme gizon egindakoa da Jesukristo, Ama Birjiñeagandik jayo zana.

**23** Nor da Ama Birjiñea?—Ama Birjiñea da graziaz eta onbidez beterikako Andrea, orban bage sortua, Jaungoikoaren Ama eta gurea, Zeruetan dagoana.



24 Zelan salbau ginduzan Jesukristok? — Bere Nekaldi eta Gurutzeko Eriotzaren bidez salbau ginduzan Jesukristok.

25 Jesukristok zertarako nai izan eban Nekaldia igaro eta Gurutzean il?—Jesukristok nai izan eban Nekaldia igaro ta Gurutzean il gure pekatuen zorrak ordaindu eta gu betiko eriotzatik ateratzearren.

26 Nun dago Jesukristo?—Jesukristo, il eta gero, berpiztu egin zan, eta orain zeruan eta Altarako Sakramentu guztiz santuan dago.

### JAUNGOIKO DONETZALLEA

27 Zer agindu eban Jesukristok, zeruetara igoterakoan?—Espiritu Santua bialduko euskula agindu eban Jesukristok zeruetara igoterakoan.

28 Nor da Espiritu Santua?—Irutasun guztiz santuaren irugarren personea da Espiritu Santua, Aita eta Semea-gandik datorrena.

29 Zertarako bialdu eban Jesukristok Espiritu Santua?—Jesukristok bialdu

## *BETE BEAR DITUGUN AGINDUAK*

- 34 Zeintzuk agindu bete bear ditu Kristiñauak?—Jaungoikoaren Legeko Aginduak eta Eleiza Amarenak bete bear ditu kristiñauak.

### **JAUNGOIKOAREN LEGEKO AGINDUAK**

- 35 Zein da Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua?—Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua auxe da: Jaungoikoa gauza guztiak baiño maiteago izango dozu.
- 36 Nork dau Jaungoikoa gauza guztiak baiño maiteago?—Bere agindu guztiak beteten dituanak dau Jaungoikoa gauza guztiak baiño maiteago.
- 37 Zein da Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua auxe da: eztozu Jaungoikoaren izena alperrik agotan artuko.
- 38 Nork erabilten dau alperrik Jaungoikoaren izena?—Birauak esaten di-

tuanak, edo izen ori bear dan lotsa barik aitatzen dauanak, erabilten dau alperrik Jaungoikoaren izena.

39 Biraoa zer da?—Itz edo keiñu lotsabakoak egitea da biraoa, Jaungoikoaren, Andra Mariaren, Santuen eta Eleizaren aurka.

40 Zein da Jaungoikoaren Legeko irugarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko irugarren agindua auxa da: Jai-egunak jai egingo dituzu.

41 Nork egiten ditu jai-egunak jai?—Jai-egunak jai egiten ditu, egun aretan Jaungoikoa goratzen dauanak Mezea entzunaz, eta esku-lanik egiten ez-taueanak.

42 Zein da Jaungoikoaren Legeko augarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko laugarren agindua auxa da: zure gurasoak aintzat eukiko dituzu.

43 Nork daukoz aintzat bere gurasoak?—Bere gurasoak aintzat daukoz eurak maite izan, itzalez begiratu eta euren esanak egiten dituanak.

44 Umeak nor euki bear dabe eredutzat?—Jesus umea euki bear dabe umeak eredu ta ispillutzat, eta gura-

soak maitatu eta aren esanak egin, Jesusek Ama Birjiñea eta San Jose maitatu eta aren esanak egin zituan lez.

45 Zein da Jaungoikoaren Legeko boskarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko boskarren agindua auxe da: eztozu iñor ilgo.

46 Zer galeratzen dau boskarren aginduak?—Boskarren aginduak galeratzen dau kalterik egitea norberen biziari edo iñorenari itzez, egitez edo nai izatez.

47 Zein da Jaungoikoaren Legeko seigarren agindua? Jaungoikoaren Legeko seigarren agindua auxe da: eztozu aragikeririk egingo.

48 Zer agintzen dau seigarren aginduak?—Gure itz eta egiteetan garbiak izateko agintzen dau seigarren aginduak.

49 Zein da Jaungoikoaren Legeko zazpigarren agindua? — Jaungoikoaren Legeko zazpigarren agindua auxe da: eztozu ostuko.

50 Zer debekatzen dausku zazpigarren aginduak?—Iñori bere ondasune-



eban Espiritu Santua gure arimak santutzeko eta Eleiza Amari lagun egiteko.

- 30 Zer da Eleiza Ama? — Kristiñau sinistedunen batzarra da Eleiza Ama, Jesukristok sortu eta Erromako Aita Santua agiriko buru dauana.

### JAUNGOIKO ORDAINTZALLEAN

- 31 Zelan saritzen ditu Jaungoikoak onak eta zigortu gaiztoak?—Zerua emonaz saritzen ditu Jaungoikoak onak, eta inpernura jaurtiaz zigortu gaiztoak.
- 32 Nortzuk doaz zerura? — Jaungoikoaren adiskidetasunean ilten diranak doaz zerura.
- 33 Nortzuk doaz inpernura?—Pekatu astunean ilten diranak doaz inpernura.

tan kalte egitea debekatzen dausku zazpigarren aginduak.

51 Zein da Jaungoikoaren Legeko zortzigarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko zortzigarren agindua auxeda: eztan gauzarik inñori eztautsazu ezarriko, eta guzurrik be eztozu esango.

52 Zer agintzen dausku zortzigarren aginduak? — Zortzigarren aginduak agintzen dausku egia esateko, eta lagun urkoaren izen ona jagoteko.

53 Zein da Jaungoikoaren Legeko bederatzigarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko bederatzigarren agindua auxeda: gogorapen ta gurari loyei eztautsezu lekurik emongo.

54 Zer agintzen dau bederatzigarren aginduak?—Gogorapen ta gurarietan garbiak izateko agintzen dau bederatzigarren aginduak.

55 Zein da Jaungoikoaren Legeko amargarren agindua?—Jaungoikoaren Legeko amargarren agindua auxeda: inñoren ondasunen gurari bidebakorik eztozu eukiko.

56      Zer galerazten dausku amargarren aginduak?—Aberastasunen gurari larregia eta iñoren ondasunen ondamau galerazten dausku amargarren aginduak.



## ELEIZA AMA EN AGINDUAK

- 57 Zein da Eleiza Amaren lenengo agindua? — Eleiza Amaren lenengo agindua auxe da: domeka ta jaiegun guztietan Meza osoa entzutea.
- 58 Nork entzuten dau Meza osoa? — Meza guztian gauza onen bati adi da-goanak entzuten dau Meza osoa.
- 59 Nortzuk dagoz Meza osoa entzutera beartuak? — Ezagueradun kristi-ñau guztiak, zazpi urteak bete ezkerro, dagoz Meza osoa entzutera beartuak.
- 60 Zein da Eleiza Amaren bigarren agindua? — Eleiza Amaren bigarren agindua auxe da: pekatu astunak autortzea urtean bein gitxienez, eta ilteko arriskuan eta Jauna artu bear danean.
- 61 Zein da Eleiza Amaren irugarren agindua? — Eleiza Amaren irugarren agindua auxe da: Pasko-aldian Jauna artzea.



62 Nortzuk dagoz Jauna artzera bear-  
tuak?—Ezagueradun kristiñau guztiak  
dagoz Jauna artzera beartuak

63 Zein da Eleiza Amaren laugarren  
agindua?—Eleiza Amaren laugarren  
agindua auxa da: Eleiza Ama Santuak  
agintzen dauanean aragi-izte ta barau  
egitea.

64 Zein da Eleiza Amaren boskarren  
agindua?—Eleiza Amaren boskarren  
agindua auxa da: Eleizeari bere bear  
izanetan laguntzea.

### ONOIMENAK

65 Zenbat dira jaungoikozko onoi-  
menak?—Jaungoikozko onoi-  
menak iru dira: siñismena, itxaromena ta goi-  
maitasuna.

66 Zenbat dira oñarri-onoi-  
menak?—Oñarri-onoi-  
menak lau dira: Zurtasu-  
na, Zuzentasuna, Sendotasuna ta Neu-  
rriztasuna.

## OBEN EDO PEKATUAK

67 Zer da oben edo pekatua?—Jaungoikoaren Legearen kontra, norberen gogoz, zerbait egitea ala ez egitea da oben edo pekatua.

68 Zenbat eratakoa izan leiteke pekatua?—Era bitakoa izan leiteke pekatua: astuna eta arina.

69 Zenbat dira griña txar nagusiak?—Griña txar nagusiak zazpi dira:

Lenengo, arrokeria:

Bigarrena, zekenkeria.

Irugarrena, aragikeria.

Laugarrena, aserrekeria.

Boskarrena, jan-edankeria.

Seigarrena, ondamua.

Zazpigarrena, nagikeria.

70 Zenbat dira arimearen arerioak?—Arimearen arerioak iru dira: mundua, deabrua eta aragia.

# *SANTUTASUNERAKO BIDEAK*

## **GRAZIA**

- 71 Zer da grazia?—Jaungoikoak guri betiko bizitza lortzeko emoten daukun zerutar emoitza da grazia.
- 72 Zeri deritxogu grazia donetzallea?—Jaungoikoaren seme eta zeruko jaubegi egiten gaituanari deritxogu grazia donetzallea.
- 73 Zeintzuk dira grazia lortzeko bide nagusiak?—Grazia lortzeko bide nagusiak bi dira: otoitza eta Sakramentuak.

## **OTOITZA**

- 74 Zer da otoitz egitea?—Jaungoikogure Aita Zerukoagaz berba egitea da otoitza, Bera goratu, Berari eskerrak emon eta guztietariko ondasunak Berari eskatzeko.
- 75 Zein da otoitzetan bikaiñena?—Jesukristok Apostoluei irakatsitako Aitagurea da otoitzetan bikaiñena.

76 Zeintzuk dira Ama Birjiñeari egiten yakozan otoitz nagusiak?—Ama Birjiñeari egiten yakozan otoitz nagusiak Agur Maria eta Agur Erregiña dira.

77 Egoki da Aingeruai ta Santuai be otoitz egitea?—Egoki da Aingeruai eta Santuai be otoitz egitea, Jaungoikoaren aurrean gure bitarteko izan daitezan.

### AKRAMENTUAK

78 Zer da Sakramentua?—Grazia adierazo ta emoten dauskun egite ageri bat da Sakramentua.

79 Nork sortu zituan Sakramentuak? Jesukristok sortu zituan Sakramentuak.

80 Zer da Bateoa?—Bateoa grazia emon, jatorrizko pekatua kendu, eta kristiñau egiten gaituan Sakramentua da.

81 Zer da Sendotza?—Espiritu Santuaren grazia ugaritzen dauskun sa-



kramentua da sendotza, gu siñisme-  
nean indartu eta Kristoren guda-gizon  
eta apostolu egiteko.

82    Zer da Autortza? — Bateo ostean  
egindako pekatuak barkatzen dituan  
Sakramentua da Autortza.

83    Noiz artzen dogu autortzako Sa-  
kramentua?—Barkamena emoten ya-  
kunean artzen dogu autortzako sakra-  
mentua.

84    Autortza ondo egiteko, zembat  
gauza bear dira?—Autortza ondo egi-  
teko bost gauza bear dira: azterketea,  
pekatuen damua, onduteko asmoa,  
autor-entzuleari pekatuak esan ta txar-  
to egiñen ordaina betetea.

85    Zer da azterketea?—Azkenengo al-  
diz ondo autortu ezkeru egindako pe-  
katuak gogora ekarten alegintzea da  
azterketea.

86    Zer da pekatuen damua?—Jaungoi-  
koa naibagetu dogulako samiña da  
pekatuen damua, naiz Bera on-utsa

dalako, naiz gu zigortu geinkezalako ala pekatuaren itxusikeriagaitik.

87 **Zer da onduteko asmoa?**—Geiago pekatu rik ez egiteko erabagi sendoa da onduteko asmoa.

88 **Zeintzuk pekatu autortu bear dira?**—Pekatu astun guztiak autortu bear dira, eta ondo da pekatu ariñak be autortzea.

89 **Zer da Eukaristia?**—Jesukristoren Gorputz eta Odolaren Sakramentua, ogi ta ardaoaren itxurapean, da Eukaristia.

90 **Eukaristian zenbat gauza euki bear dira gogoan?**—Eukaristian iru gauza euki bear dira gogoan:

Lenengoa, Eukaristian Jesukristo egiaz ta benetan dagoela.

Bigarrena, Eukaristian Jesukristok gugaitik bere burua eskeintzen dauala Meza Santuan.

Irugarrena, Eukaristian Jesukristo artzen dogula Jauna artzean.

91 **Noiz asten da Jesukristo Eukaristian egoten?**—Meza-erdian asten da Jesukristo Eukaristian egoten.

- 92    **Zer da Ostia, Meza-erdi aurrean?**—  
Gari-ogi zati bat da Ostia Meza-erdi  
aurrean.
- 93    **Zer da Ostia Meza-erdi ostean?**—  
Jesukristoren gorputza da Ostia,  
Meza-erdi ostean.
- 94    **Zer dago kalizean Meza-erdi au-  
rretik?** — Ardaoa, ur-tanta batzukaz  
dago kalizean Meza-erdi aurretik.
- 95    **Zer dago kalizean Meza-erdi os-  
tean?**—Jesukristoren Odola dago kali-  
zean Meza-erdi ostean.
- 96    **Zelan dago Jesukristo Eukaris-  
tian?**—Jesukristo oso-osorik dago Eu-  
karistiako zati guztietan eta bakotxean.
- 97    **Zer da Meza santua?**—Jesukristo-  
ren Gorputz eta Odolaren Oparia da  
Meza santua.
- 97 bis **Zer eskeintzen da Mezako Opa-  
rian?**—Mezako Oparian Jesukristok  
bere burua eskeintzen dauka Jaun-  
goikoari abadearen bitartez, Gurutze-  
ko Oparia gomutauaz ta barriztauaz.
- 98    **Zer da Jauna artzea?**—Ogi ta ar-  
daoaren itxurapean Jesukristo berbe-  
ra artzea da Jauna artzea.

- 99      Zertarako artzen dogu Jesukristo Jauna artzean? — Jesukristo artzen dogu Jauna artzean gure arimaren janari izan daiten eta grazia ugaritu ta betiko bizitzea emon dagiskun.
- 100     Jauna ondo artzeko zenbat gauza bear dira?—Jauna ondo artzeko iru gauza bear dira: Jaungoikoaren grazian egon, Jauna artzeko agindutako baraua gorde, eta nor artzen dogun jakin.
- 101     Zer da Jaungoikoaren grazian egotea?—Pekatu astunik ez eukitea da Jaungoikoaren grazian egotea.
- 102     Zelako baraua bear da Jauna artzeko?—Jauna artzeko bear dan baraua da iru ordu lenagotik ezer jan eta ardao-gauzarik edan bage egotea, eta ordu bete lenago ezer edan barik. Urak ez dau baraua austen.
- 103     Zelan eldu bear dogu Jauna artzera?—Siñismen biziaz, gogo beroz, apal eta begirunez eldu bear dogu Jauna artzera.
- 104     Zer da azken igurtzia (Oleaziñoa)?—Gaixo astunaz dagoan kris-



tiñauaren arimea ta gorputza arintzen dituan Sakramentua da azken igurtzia.

105 Zer da abadegintza?—Kristiñau batzuk Jaungoikoaren ordezeko edo eleiz-gizon egiten dituan Sakramentua da abadegintza.

106 Zer da ezkontza?—Senar-emazteen batasuna santutzeko Sakramentua da eskontza.

106 bis Zer grazia emoten dautse ezkontzeak ezkonduiei?—Ezkontzeak ezkonduiei alkarregaz bakean bizi izateko eta zerurako seme-alabak aziteko grazia emoten dautse.

